

ASISKO URMENETA

Deskribapena: Kike, Asisko Urmenetakin Donostiako portuan elkarriketan ageri da.

Kike: “Asisko, eta zuk ze inpresio duzu, gure hizkera kolokialean, gaztelaniaren eta frantsesaren eragina haundia dela?”

Asisko: “Ikaragarria, ikaragarria. Batetik nik uste, batua egin baitzuten, eta eskerrak egin ere. Hor badela lanabes bat ikaragarri haundia goi mailakoa erran dezagun, eta goi mail horretan gainera, nola erran, aski monokromo, monokorde eta monotonoa ere badela. Nahi baldin badugu, argitasun piskat, kolore piskat, ñabardura eta hola, e, nora jotzen dugu? Ba, ez dugu sobera urrunera joan behar ohartzeko kasurik hoberenean euskalkira, dialektora jotzen dugula eta kasurik okerrenean erdarara, erran baita espainolera edo frantsesera. Horren ondoko urratsa zein da? Gero eta zailago egiten zaigula euskaldunon arteko komunikazio informala.”

Kike: “Ze, zuk inoiz aipatu izan dezu gure hizkera kolokiala koloniala dela.”

Asisko: “Bai, bai bueno hori miño lehenago, beste hitz joku merke bat egin genuen eta hura zen “euskara informala edo informol-a”.”

Kike: “Ea, ea, ea...”

Asisko: “Bai, batetik badugu euskara korrektu, perfektu ukiezin hori eta nik ez dut hori behar, nik behar dut euskara inperfektu, inkorrektu eta lardaxkagarri bat. Orduan, hortatik abiatuta, aztertu genuen euskara kolokiala eta ohartu ginen koloniala zela gehio, erran baita, espainolaren karga ikaragarri haundia duela hegoaldean eta frantsesarena iparraldean.”